

3. gaia. Enpresaren eraketa: Enpresa eratzeko eta martxan jartzeko beharrezkoak diren irizpideak.

1. ARIKETA

Ariketa honetan enpresen izenei eta logotipoei erreparatuko diegu.

A) **IZENA**

a.1)Topa ezazu enpresen izenak irizpide ezberdinak kontuan hartzen dituztenak:

IRIZPIDEAK	ENPRESEN IZENAK
Esanahia	LEGO: Daniarrez bi hitzez osatuta dago: “LEG gOdt” eta esan nahi du “ondo jolastu”
Deigarria	“Follador” enpresaren izena oso deigarria da, ardoa saltzen duen enpresa baita.
Produktuarekin erlazionatuta	Bizkaibus: Bizkaian busak eskaintzen dituen enpresa da.
Jabeen izenak	Lacoste: Bere jabearen abizena da:René Lacoste
Siglak	LG: Life’s Good esan nahi du, bizitza ona izatea
Beste irizpiderik?	

B) **LOGOTIPOA**

b.1) Enpresen logotipoei erreparatuta, bila itzazu enpresen logotipoak irizpide hauek kontuan hartuta.

✓ Merkaturatuko dugun artikulua adierazten du



Mesuk bidaltzeko edo deitzeko erabiltzen den programa da.

3. gaia. Enpresaren eraketa: Enpresa eratzeko eta martxan jartzeko beharrezkoak diren izapideak.

✓ Erakargarria dirudi



Erakargarria da kolore asko erabiltzen dituelako eta diseinu modernoa erabiltzen baitu.


✓ Esanahi ezkutuak



LG-ren logoa biratzen badugu eta sudurra igo, Pacman baten itxura du

3. gaia. Enpresaren eraketa: Enpresa eratzeko eta martxan jartzeko beharrezkoak diren izapideak.

b.2) Horrez gain, saiatu bilatzen zure gustuko logotipo bat. Egin horri buruzko iruzkina eta eman logotipoari buruzko zure iritzia.



Logo honen hitzak N.A.S.A ingelesez National Aeronautics and Space Administration esan nahi dute.. Alde batetik, EE.UUko gobernuko espazioa esploratzeko agentzia dela jakinda aztertu dezakegu hainbat ezaugarri nabarmenak. Adibidez logoaren atzealdeko urdin iluna espazio hondogabea esaten digu eta puntu zuriak unibertso behagarriaren izarrak adierazten ditu. Zirkulu zuria gizartearen helmugak adierazten ditu, lortu nahi diren gauzak espazioari dagokionez, adibidez Marte kolonizatzea edo eguzki-sistematik kanpo gizakiak bidaltzea eta triangelu gorria, zirkulu zuria zeharkatzen duenez gure ahalmenak adierazten ditu, gure desioak, gure helmugak edo lortuko diren gauzak gure esfortzuari esker.